# ZoOo



SAN SEBASTIAN
DONOSTIA 2016

cristinaenea
fundazioa
Donostiako Ingurumen Baliabideen Etxea
Centro de Recursos Medio Ambientales de San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

**ZoOo** artistek eta zinemagileek animalien irudikapenen inguruan egindako lanak biltzen dituen proiektua da. "Zientzia fikzioa da" Jean Painlevé-ren lan filmikoaren aukeraketa bat da, talde surrealistarekin erlazionatua eta zinema "zientifiko-poetikoaren" aita bera. Toni Crabb-ek "Barraskilo" aurkezten du, hiru kanaleko bideo-instalazioa, "ezin ezagut daitekeen mundu batean barrena eginiko paseoa" dena. Andreas Wutz-ek koordinatua, "Animalia-Zinema" du izenburu zinema eta bideo programa batek, besteak beste Stan Brakhage, Chris Marker eta Valie Export-en film laburrak biltzen dituena. Bukatzeko, Donostiako Aquariumeko artxibo dokumentaleko parte diren ilustrazio batzuk erakutsiko dira. Horietako batzuek begirada mikroskopiko bat zuzentzen dute ur azpiko mundura, animalien eta landareen arteko muga hauskorra agerian uzten duena.

Gizatiarra dena aberetasunekiko urruntzetik abiatuta eraiki da. Esoporen alegietatik Truffauten "Haur basatiaraino", XIX. mendeko teoria fisiognomikoetatik eta Kafkaren "Metamorfosiatik" pasatuta, animalia, gizatiarra denaren bestelakotasun muturreko gisa irudikatua, lilura anbibalente bat piztu izan du. Gizakiak gainerako animaliak ikusteko moduak erabaki du halaber bere burua ikusteko modua eta naturaz eta kulturaz duen ikusmoldea.

Begirada so egiten ari den horren gainean proiektatzen da. Hala, eta gizakiak bere ingurunearen gainean duen nagusitasunaren beste forma bat bezala, animalia tradizioz instrumentalizatu eta irudikatu izan du giza begiradak bere neurriaren arabera. Animalienganako portaera etiko eta ekologiko bat eskatzen duen sentiberatasunaz hitz egiten denean, eskakizun hori aberetasunaz egiten diren irudikapenei beraiei luzatu beharko litzaieke. **ZoOo**k biltzen dituen lanek, sentiberatasun utilitarista eta bere baitan bildu batetik haratago, hurbilak bezain arrotzak zaizkigun izaki batzuei begirada zuzentzeko beste modu batzuk erakusten dituzte.

**ZoOo** es un proyecto que reúne trabajos de artistas y cineastas en torno a las representaciones de animales: “La ciencia es ficción” es una selección de la obra fílmica de Jean Painlevé, cineasta relacionado con el grupo surrealista y padre del cine “científico-poético”. Toni Crabb presenta “Caracol”, una vídeo-instalación de tres canales que es “un paseo por un mundo incognoscible”. Coordinado por Andreas Wutz, “Cine-animal” es el título de un programa de cine y vídeo que recoge cortometrajes de Stan Brakhage, Chris Marker y Valie Export entre otros. Para finalizar, se muestran unas ilustraciones que forman parte del archivo documental del Aquarium de Donostia-San Sebastián. Algunas de éstas lanzan una mirada microscópica al mundo subacuático que revela la frágil frontera existente entre lo animal y lo vegetal.

Lo humano se ha construido a partir del distanciamiento de lo animal. Desde las fábulas de Esopo hasta “El pequeño salvaje” de Truffaut, pasando por las teorías fisiognómicas del XIX y “La metamorfosis” de Kafka, el animal, representado como la alteridad extrema de lo humano, ha despertado una fascinación ambivalente. La forma en la que el hombre ha considerado al resto de los animales ha determinado también la manera en que se ve a sí mismo y su concepción de la naturaleza y la cultura.



La mirada se proyecta sobre aquello que mira. Así, y como una forma más del dominio que el hombre ejerce sobre su medio, el animal ha sido tradicionalmente instrumentalizado y representado por la mirada humana a su propia medida. Cuando se habla de una sensibilidad que reclama un comportamiento ético y ecológico para con los animales, debería pensarse en hacer extensible esta reclamación a las propias representaciones de lo animal. **ZoOo** reúne obras que, más allá de una sensibilidad utilitarista y ensimismada, recogen otras maneras de dirigir la mirada sobre unos seres que nos son tan cercanos como extraños.

# Erakusketa : Exposición

Maiatzak 7 - Uztailak 5

7 de mayo - 5 de julio

**Maiatzak 6 asteazkena 18:30etan**
Brigitte Berg-en hitzaldia Donostiko Aquariumean:
*Jean Painlevé : Urpeko bizitza*

**6 de mayo miércoles a las 18:30**
Conferencia de Brigitte Berg en el Aquarium de San Sebastián:
*Jean Painlevé : Vida subacuática*

Brigitte Berg, Jean Painlevéren artxiboaren "Les Documents Cinematographique" komisarioa da eta Jean Painlevéren lana aurkeztuko digu.

Brigitte Berg, comisaria del archivo parisino de Jean Painlevé "Les Documents Cinematographique" nos presentará la obra de Jean Painlevé.

---

**Maiatzak 7 osteguna 19.00etan Inaugurazioa.**
Bertan Ibon Rodriguez ( gitarra, tronpeta eta ordenagailua) eta Maite Arroitajauregi-k ( biolontxeloa) Jean Painleveren filma batean oinarritutako inprobisasio saio bat eskainiko dute.

**7 de mayo Jueves a las 19.00 inauguración.**
Durante la misma Ibon Rodríguez ( guitarra, trompeta y ordenador ) y Maite Arroitajauregi ( violonchelo ) ofrecerán una sesión improvisada basada en una película de Jean Painlevé.

Ibon Rodriguez & Maite Arroitajauregi Minimalismo eta inprobisazioaren uretan igerian dabilen bikotea dugu.

Ibon Rodríguez Pelayo y Maite Arriotajauregi son un dúo de inmersión sin bombona que bucea entre la improvisación minimal y el puntillismo experimental.



**Jean Painlevé** (París, 1902 - Nevilly-sur-Seine, 1989)
Zine zuzendari frantziarra, mugimendu surrealistarekin kontaktuan egon zen. Bere kamera eta itsasazpiko mundua erakusteko grina zirela medio, Painleve-k publiko guztientzako "zine zientifikoa" sortu zuen. Dokumentalaren azpigenero moduan aldarrikatu zuena, Sergei Eisenstein, Jean Vigo eta Luis Buñuel moduko zinegileen babesa izan zuen. Nahiz eta bere izena historiako zine zuzendari handien zerrendan ez agertu, Painleveren talentua eta dokumental generoari eginiko ekarpenak ukaezinak dira, egin zituen ia berrehun pelikula ezberdinetan ikus daitekeen bezala.

Director de cine francés estuvo en contacto con el grupo surrealista. Con su cámara y su obsesiva intención de mostrar la vida en el mundo submarino, Painlevé creó el "cine científico" para el gran público; un término que el propio director reivindicó como subgénero del documental y que contó con el respaldo de prestigiosos directores como Sergei Eisenstein, Jean Vigo y Luis Buñuel. Aunque su nombre no figura en la lista de los grandes directores de la historia del cine, el talento y la indiscutible aportación de Painlevé al género documental han quedado recogidos en cerca de doscientas películas.

**Andreas Wutz**
Artista eta zinegilea da, 1962an Munichen jaio eta egun Bartzelonan bizi da. Bere pelikulak hainbat zinemaldi eta arte erakusketetan proiektatu dira. "Cine de Pilotos" sortu zuen eta "Schnitt", "LaVanguardia" eta Bartzelonako Kultura Garaikideko Zentruarekin elkarlanean aritu izan da.
www.tortoisebox.org/andreaswutz

Artista y cineasta, nació en Múnich en 1962 y vive en Barcelona. Sus películas se han proyectado en festivales de cine y exposiciones de arte. Fundó el programa "Cine de Pilotos" y ha colaborado con "Schnitt", "La Vanguardia" y el Centre de Cultura Contemporània de Barcelona.
www.tortoisebox.org/andreaswutz



**Toni Crabb** (Harare, Zimbabue, 1970)
Artista da eta Bartzelonan bizi da.
Medio ezberdinekin egiten du lan.
www.tortoisebox.org/tonicrabb

Es artista. Actualmente reside y trabaja en Barcelona.
www.tortoisebox.org/tonicrabb

# AniMalia Zinema

Asteazkena
Miércoles **20/05** **19:00** **75'**

Animaliaren inguruko film laburren eta artista-bideoen programa, gizakiarekiko mugan (eta haren muga-izaki gisa)

Programa de cortometrajes y vídeos de artista sobre el animal en las fronteras de, y como ser fronterizo con, lo humano.

Andreas Wutz
(Cine de Pilotos)

**Behaketak: gorputza eta portaera**
Saio honetako filmek hirurogeita hamar urteko tartea hartzen dute. Hurbileko edo urruneko inguruneko animalien behaketa lauak dira. Animaliarengan zentratzen dira, haren gorputzean, haren portaeran, haren estetikan. Hala ere, Chris Oakleyren bideoan behaketan bertan zentratzen da arreta. Ez du hainbeste animalia deskribatzen, animaliaren behaketa baten helburua eta atzealdea baizik.

**Observaciones: cuerpo y comportamiento**
Las películas de esta sesión abarcan un período de setenta años. Son observaciones sencillas de animales del entorno cercano o distante. Se centran en el animal, en su cuerpo, su comportamiento, su estética. Sin embargo, en el vídeo de Chris Oakley es la observación en sí la que ocupa el foco de atención. Él no describe tanto el animal, sino más bien el objetivo y el trasfondo de una observación del animal.

**L'hippocampe :** Jean Painlevé **:** 1934 - FRA **:** 13'

**The private life of a cat :** A. Hammid/M. Deren **:** 1944 - EUA **:** 25'

**Sight/seeing :** Chris Oakley **:** 2006 - GB **:** 10'

**Animal studies :** Guy Sherwin **:** 1998/2003 - GB **:** 25'

Asteazkena **27/05** **19:00 85′**
Miércoles

**Metamorfosia: irudimena eta animazioa**
Animaliaren irudia, historiaurreko marrazkietan irudikatzen den moduan, artearen hastapenetatik dator. Testuinguru ez erlijiosoan ere animaliaren irudiak gauza arrunten mundua gauza berebizikoenarekin lotzen duela dirudi. Animaliaren irudiaren argitan, gizakia berriro ere agertzen da aldatzeko gai, zaurgarri, aukera baten moduan. Animaliarekin sexualitatea du komuna, eta animalia bilaka daiteke inoiz erabateko animalia izatera iritsi gabe.

**Metamorfosis: imaginación y animación**
La imagen del animal, tal como se representa en dibujos prehistóricos, pertenece a los principios del arte. También en el contexto no religioso la imagen del animal parece vincular el mundo de lo ordinario con el de lo excepcional. A la luz de la imagen del animal, el humano otra vez aparece susceptible al cambio, vulnerable, como una posibilidad. Tiene en común con el animal la sexualidad, y puede llegar a ser animal sin serlo nunca totalmente.

**Cat's Cradle :** Stan Brakhage **:** 1956 - EUA **:** 6′

**Pasht :** Stan Brakhage **:** 1965 - EUA **:** 6′

**7 Steps 6 Legs :** Toni Crabb **:** 2005 - ESP **:** 3′

**Annabelle Butterfly Dance :** William K.L. Dickson **:** 1895 - EUA **:** 3′

**Mann & Frau & Animal :** Valie Export **:** 1973 - AU **:** 12′

**Cat Listening To Music :** Chris Marker **:** 2006 - FRA **:** 3′

**Labut' :** Viktor Vokjan **:** 2003 - CZE **:** 12′

**Weltenempfänger :** Schmelzdahin **:** 1984 - AL **:** 8′

**Black Pianino :** Anneke de Boer **:** 1996 - HOL **:** 6′

**Anatomia de una Mariposa :** Adriana Bravo/Andrea Robles **:** 2004 - MEX **:** 6′

**Birds :** David Hinton **:** 2000 - GB **:** 10′

Asteazkena
Miércoles **03/06** **19:00** **75′**

**Koexistentzia: komunitatea eta bereizketa**
Eboluzioaren azken irudia atzeraezintasunaren irudia da, eta horrexegatik baita tragediaren irudia ere. Hura partekatzea, lortzea jada posible ez bada ere, horra hor animaliarekiko komunitatearen promesa. Pelechian-en "Yehanaknere" filma komunitate arketipiko horretaz mintzatzen da nekazal bizitzaren adibidearen bitartez, eta Gilles Deleuzek esplikatzen du zergatik ez duen gizakientzat bakarrik idazten, baizik eta animalientzat ere bai, eta zergatik iruditzen zaion beharrezkoa. Animaliaren koeboluzioaren eta koexistentziaren irudia diptiko bat da, bere baitan giza tragedia baino gehiago begirunea eta betebeharra daukana.

**Coexistencias: comunidad y separación**
La última imagen de la evolución es una imagen de irreversibilidad y por eso también de tragedia. Compartirla, aunque ya no sea posible lograrlo, he ahí la promesa de la comunidad con el animal. "Yehanaknere", la película de Pelechian, habla de esta comunidad arquetípica por medio del ejemplo de la vida campesina, y Gilles Deleuze justifica por qué él no escribe sólo para los humanos, sino también para los animales y por qué a él le parece necesario. La imagen de la coevolución y coexistencia del animal es un díptico que contiene menos tragedia humana que respeto y obligación.

**L'abécédaire de G.Deleuze, A-Animal :** Pierre-André Boutang **:** 1996 - FRA **:** 10′

**Tarva Yeghanaknere :** Artavazd Pelechian **:** 1972 - ARM **:** 30′

**Obibateli :** Artavazd Pelechian **:** 1970 - ARM **:** 10′

**Of Some Animals and their Movements in their Respective Habitats :** Toni Crabb **:** 2007 - ESP **:** 8′

**Tieridylle in der Großstadt :** Ulrich K.T.Schulz/W.Junghans **:** 1932 - AL **:** 12′

**Untitled (Dog) :** Alexander Heim **:** 2006 - GB **:** 4′

Asteazkena
Miércoles **10/06** **19:00** **90′**

**Animaliak: biktima eta baldintza**
Zooa eta hiltegia bereziki animalientzako hiri tokiak dira. Haien eraikuntza eta instalazioa hiri industrializazioaren eta naturaren museotzearen adierazgarriak eta ondorioak dira. Bertan animaliak giza helburuak soilik zerbitzatzen ditu, dela elikadura, entretenimendua, edo apaindura sentimental bat eskaintzea. Beti da objektu bat. Mugetan bakarrik, hala nola heriotzaren mugan, Franju-ren filmak erakusten duen moduan, nabaritzen dugu, antza, animaliaren begirada, eta une oso azkar eta bat-batekoan harekiko komunitatean gaudela esaten digu senak.

**Animales: víctima y requisito**
El zoo y el matadero son lugares de las ciudades especiales para el animal. Su construcción e instalación son signo y consecuencia de la industrialización urbana y de la museización de la naturaleza. Aquí el animal sirve exclusivamente a objetivos humanos, sean estos la alimentación, el entretenimiento o proporcionar un decorado sentimental. Es siempre un objeto. Sólo en las fronteras, por ejemplo la de la muerte, como muestra la película de Franju, parecemos notar la mirada del animal, y por un momento, muy rápido y repentino, intuimos una comunidad con él.

**Le Sang des Bêtes :** Georges Franju **:** 1949 - FRA **:** 22′

**Gallodrome :** Romuald Kamarkar **:** 1988 - AL **:** 12′

**Zoo :** Bert Haanstra **:** 1962 - HOL **:** 12′

**About Dogs and People :** Mário Homolka/Mišo Suchý **:** 1993 - ESL **:** 43′


Fotograma de "Yedhanaknere" por Artavazd Pelechian

cristinaenea
fundazioa
Donostiako Ingurumen Baliabideen Etxea
Centro de Recursos Medio Ambientales de San Sebastián

Ordutegia / Horario:
9:30-13:30
15:00-20:00

Igande eta jaiegunetan
Domingos y festivos:
10:00-13:30

Mandasko Dukearen
pasealekua, 66
20012 - Donostia

cristinaenea@donostia.org
**www.cristinaenea.org**

Patronoak dira:
Son patronos:

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Guipuzkoa

IBERDROLA

Parte hartzen du:
Colabora:

AQUARIUM
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN